

**2012ko azaroaren 28a**

## **Deustuko Unibertsitatearen jakinarazpena**

Gizarte sareetan eta hedabideetan zenbait albistek esan dute Deustuko Unibertsitateko ikasle batzuen argazki partikularrak azaldu direla sarean eta argazki horiek legez kanpo lortu eta banatu direla. Hori dela eta Deustuko Unibertsitateak honako hau adierazten du:

1. Ez dago inolako zantzurik esateko Deustuko Unibertsitateko wifiak bertara konektatutako gailu elektroniko, telefono edo ordenagailuetako informaziorako sarbiderik eman duenik.
2. Norbaitek gailu elektroniko bateko informazioa eskuratu badu, jabeak terminal horretara sartzea eragozteko segurtasun-neurririk hartu ez duelako eskuratu du.
3. Prentsa ohar hau idazteko unean, Ertzaintzarekin harremanetan gaude eta, dakigunez, ez da egin salaketarik, prozedurarik ez atxiloketarik. Hala ere, gertaera honek kaltetutako pertsonen biziki gomendatzen diegu salaketa aurkezteko, jakinik unibertsitatearen babesa izango dutela.
4. Tamalgarria da gizarte sareak modu okerrean erabiltzea, pertsonen kalterako.
5. Komeni da orokorrean, eta zifratu gabeko sareak erabiltzean bereziki, prebentzio eta babes neurriak hartzea gailu pertsonaletan (telefono mugikorrean eta ordenagailuan), inor bertan sar ez dadin eta norberak nahi ez duenerako manipula ez ditzan.